

Espainiako historia

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bat erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Zuzenketa eta kalifikazio irizpide espezifikoak:

1. Gaia: 5 puntu. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptuak eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu iruzkina: 5 puntu. Testuaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Criterios específicos de corrección y calificación:

1. Tema: 5 puntos. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema: 3 p.
2. Comentario de texto: 5 puntos. La calificación del texto se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.

A AUKERA

**GAIA: FORUAK ETA LIBERALISMOA: KARLISTADAK ETA FORUAK
INDARGABETZEKO PROZESUA (1833-1876)**

TESTU-IRUZKINA: 1978KO ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978-12-29)

Don Joan Karlos I.ak Espainiako Erregeak honako hau ikusi eta ulertzen duten guztiei honako hau jakinarazten die: Gorteek honako konstituzio hau onartu dutela eta espainiar herriak berretsi egin duela: (...)

1. art. 1. Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa osatzen du eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta politika aniztasuna aldarrikatzen ditu bere antolamendu juridikoaren goi mailako balio gisa.

2. Subiranotasun nazionala espainiar herriak du eta bertan dute jatorria estatuaren botereek.

3. Espainiar estatuaren forma politikoa parlamentuzko monarkia da.

2. art. Konstituzioa espainiar guztien aberri erkide eta zatiezina den Espainiaren batasun zatiezinean oinarritzen da eta osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen autonomia eskubidea eta haien guztien arteko solidaritatea aitortu eta bermatzen du. (...)

66. art. 1. Gorte Nagusiek ordezkatzen dute espainiar herria eta Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatzen dute. (...)

98. art. 1. Presidenteak, presidenteordeek, baldin badira, ministroek eta Legeak xedatzen dituen gainerako kideek osatzen dute Gobernuak. (...)

117. art. 1. Justiziak herrian du jatorria eta botere judiziala osatzen duten epaile eta magistratuak administratzen dute erregearen izenean. Epaile eta magistratuak independenteak, ezin kenduzkoak eta arduratsuak dira eta Legearen mende bakarrik daude. (...)

143. art. 1. Konstituzioaren 2. artikuluan onartutako autonomia eskubidea erabiliz, ezaugarri historiko, kultural eta ekonomiko erkideak dituzten probintzia mugakideek (...) autogobernua izan dezakete eta Autonomia Erkidegotan eratu daitezke, titulu honetan eta dagozkien estatutuetan aurreikusitakoaren arabera. (...)

XEDAPEN GEHIGARRIAK. Lehena. Konstituzioak foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru erregimen horren eguneratze orokorra Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen esparruan egingo da, egitekotan. (...)

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. (...) 2. Indarrean egon bazitekeen ere, behin betiko indargabetutzat jotzen da 1839ko urriaren 25eko legea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiari eragin diezaiekeen guztiari dagokionez. Era berean, behin betiko indargabetutzat jotzen da 1876ko uztailearen 21eko legea.

[Gorteek onartutakoa 1978ko urriaren 31n. Erreferenduma abenduaren 6an.]

Estatuko Aldizkari Ofizial, 1978ko abenduaren 29a.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2014ko UZTAILA

ESPAINIAKO HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2014

HISTORIA DE ESPAÑA

B AUKERA

GAIA: DIKTADURA FRANKISTAREN FINKAPENA ETA KRISIALDIA (1959-1975)

**TESTU-IRUZKINA: FEDERICO ECHEVARRIAREN HITZALDIA LIBREKANBISMOARI
ETA PROTEKZIONISMOARI BURUZ (1893-12-09)**

Ez, hemen gertatzen den gauza bakarra zera da, Espainiaren eta Alemaniaren artean sinatu nahi den itun tamalgarriaren ondorioz, atzera botako dela eta deseginik geldituko dela egungo aduana-zergen araubidea ezartzeko egindako lan handia. Eta jokabide horrek zoritxar handia ekarriko dio herrialdeari, dudarik gabe; ez bakarrik aurrekari zorigaiztoko bat ezarriko lukeelako, etorkizuneko zeinahi industria-ekimen hondatuko lukeena, baizik eta, orobat, zauri hilgarria eragingo liekeelako lantegiei; bai egungo aduana-zergen araubidearen babesean altxatu direnei, halakoak baitira gehien-gehienak, bai lehendik altxatuak zirenetan egin diren erreforma eta zabaltze handiei. Eta industria-jarduera horren guztiaren heriotzak, ohar gaitezen, hauek guztiak harrapatuko lituzke: Labe Garaietan, galdaragintzako eta makinak egiteko instalazio berriak; (...) altzairu-ekoizpena; Deustuko Lantegietan, altzairu moldekatuak eta trakzio-makinak eta -materiala egiteko saila; Aurreran, hodi-funtzio oso garrantzitsuak, eta altzairu-lanak; Zorrotzako lantegietan eta Miraballeskoetan, zubi, bagoi eta eraikinak egiteko lanak eta galdaragintza (...) eta beste asko eta asko, luze joko bailiguke orain denak aipatzeak. Ez aipatzeagatik, jaun-andreok, berebiziko garrantzia duten fabrika-proiektuak —izenik ezin dut eman—, 1892ko aduana-zergak jarraitzearen baitan baitago haiek gauzatzea edo ez.

Hain ondorio lazgarriak saihesteko, hainbesteko hondamena saihesteko, Bizkaia ez ezik Espainiako beste eskualde oso garrantzitsu batzuk ere hartuko bailituzke eta eragina izango bailuke nazio osoan, tinko eskatu behar diogu Gobernuari ez dadila araubidetik urrundu, ez dezala halako modu zalapartatsu eta gupidagabeen suntsitu gaur egungo babes-sistema, eta, beraz, bazterrera utz dezala espainiar-alemaniar itun zentzugabe hori.

Merkataritza Itunen kontrako mitin-protesta, Bilbon, 1893ko abenduaren 9an. Bilbo, 1894.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

ESPAINIAKO HISTORIA / HISTORIA DE ESPAÑA

Ebaluazio-irizpideak

1. Espainiaren historia eta euskal historia garaikidea osatzen duten prozesu azpimarragarrienak ezagutzea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea.
2. Prozesu historikoetan gauza batzuk zergatik aldatzen diren eta beste batzuk zergatik irauten duten azaltzen duten faktoreak ulertzea, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate-aniztasunaz ohartzea.
3. Oinarritzko kontzeptu eta termino historikoak ulertzea eta egokiro erabiltzea.
4. Ikasgaiaren edukiak egokitasunez adieraztea eta jakinaraztea.

Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak

1. Gaiak nahiz testu-iruzkinak gehienez 5 puntu balioko dute; beraz, azken nota 0 eta 10 punturen artean egongo da.
2. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea (beste gertakizun sinkroniko batzuekin erlazionatzea): 3 p.
3. Testu-iruzkinerako
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarritzko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Criteria de evaluación

1. Conocer los procesos más relevantes que configuran la historia española y vasca contemporánea, identificando las interrelaciones entre hechos políticos, económicos, sociales y culturales.
2. Comprender los factores que explican los cambios y las permanencias que se dan en el proceso histórico, reconociendo la causalidad múltiple que comportan los hechos sociales.
3. Comprender y utilizar adecuadamente los conceptos y términos históricos básicos.
4. Expresar y comunicar los contenidos de la materia de forma adecuada.

Criteria específicos de corrección y calificación

1. Tanto el tema como el comentario de texto se puntuará hasta un máximo de cinco puntos, con lo que la nota final podrá oscilar entre 0 y 10 puntos.
2. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema (relación con otros acontecimientos sincrónicos): 3 p.
3. Para el comentario de texto
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.